

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2012ko otsailaren 29a. IX. urtea. 2.370. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Tolosaldeko langabezia tasa %68,8 igo da azken lau urteetan

2012ko urtarrilaren 31ko datuak erreparatuta, eskualdean 2.821 pertsona daude lanik gabe, %13,7a; Gipuzkoa guztian 43.987 lagun daude langabezian, %12,6a

Azken lau urtetako datuak aztertuta langabe kopurua Urola Erdia zonaldean igo da gehien, eta Tolosaldea zortzigarrena izango litzateke **o 4-5**

Saioa Iraola Bilgune Feministako kidea

«Gure eskubideen aitortza lortzeko oso une garrantzitsua da»

Emakume abertzaleen V. Topaketa Feministak izango dira Leitzan, asteburu honetan **o 7**



I. TERROJILLOS



LEI

→ **Blues musikak Zizurkil hartuko du.** Zizurkilgo Udalak eta herriko hiru tabernek X. Blues Gaua aurkeztu dute. Lau taldek eskainiko dituzte kontzertuak, larunbatean, Atxulondo, Egarri eta Pásus edaritegietan. Horrelako jaialdia antolatzeko egin duten elkarlana nabarmendu dute udaleko eta tabernetako ordezkariek. **o 6**

**FUNERARIA
VASCONGADA
EHORZKETAK**
902 402 900
www.funerariavascongada.com



**Bidali
zure
argazkia!**

**Inauterietako
Argazki lehiaketa**



• **Saria:**
Bizkaiko Ajangiz herrian dagoen **Astobietan nekazalturismoan** bi pertsonentzako gau bateko egonaldia eta gosaria.

• **Argazkiak nora bidali:**
thargazkiak@hitza.info
Argazkiek gutxienez 20 zentimetrokoak eta 300 ppp-ko bereizmena izan behar dute.



Parte hartuko duten argazki guztiak ikusgai izango dira Inauterietan tolosa.hitza.info webgunean!

✉ **Gutuna**

Kontaminatuta

Errealitate kontaminatuta bizi dugu. Egutero, politikariek, beren kontrolpean dauden komunikabideetan isurtzen dituzten iritziak kontaminatuta. Nazkatuta nago, iruzurtua sentitzen naiz, gure bizitzari modu zuzenean eragiten dieten gaiak politikariek beren mesederako erabiliaz, nola engainatzen gaituzten ikusteaz nekatuta. Erabaki horien kontrola herritarrok izan beharko genuke, politikariek ordezkariatza lana soilik egin beharko lukete, herritarren erabakiak aurrera eramateko ordezkariatza. Horren ordez, politikariek manipulatuta egiten dute, iritzia sortu eta errealitate beraien mesederako desitxuratu. Oposizioan daudenek gobernuko kontrako esaten dute, bai ala bai, alderdi politiko jakin bateko kide izatea, edozein gaitan, beren iritzi propioen gainetik jartzeko dutelako.

Tolosan gaurkotasan handia duten bi gai jarriko ditut adibide gisa. Hasteko, Arrameleko herri sarrerako errepidea lurperatu behar ote den ala ez. Garai bateko Foru Aldundiaren, eta udal arkitektoaren txosten teknikoek, ez dute duda izpirik uzten. Ezin dut ulertu, nola politikari batek proiektu hori aurrera eramateko erabakia hartu dezakeen txosten horiek mahai gainean izanda. Voith-Gorostidi eremuko ordenazio berria akats urbanistiko larria da, baina jada ez dago zereginik, eraikia dago eta. Arrameleko errepideko urbanizazio lanak egiteke daude, ordea. Udal prozesu parte-hartzaile bat jarri du martxan, eta eztabaida horren barruan, herriko arkitektoei gure iritzia eskertu digute.

Nik dakidala, horrelako eskaera zabal bat egiten zaigun lehen aldia da hau, eta nik behintzat, arkitekto eta herritar bezala, eskertu egiten dut; nire ekarpena egin nahi bainuke erabakiak hartzeko garaian ahalik eta informazio gehien izan dezaten. Denen artean gauzak hobeto egin ditzakegula pentsa-

tzen dudalako, erabakietan astatzen saiatu beharko genuke, denboran iraungo duten eta gure seme-alabei utziko diegun ondarearen zati izango diren erabakietan behintzat. Honen harira, irakurri berri dut udaleko alderdi politiko baten ustez, gaizki omen dagoela arkitektoei galdetze hori, ikusten denez, erantzun konkretu bat emateko presionatuta sentitu baikaitezke. Nire kasuan ez behintzat, ez nire izenean, norbaitek esango lukeen bezala. Borondatez erantzun diet udalak egindako galderei, eta berdina erantzun-go nukeen beste edozeinek galdetuta ere.

Bigarren gaia, nola ez, atez ateko zaborren bilketarena da. Egia esateko, ez dakit honi buruzko gauza handirik. Birziklatze-tasa handiena bermatzen duen sistema omen da, eta hori da, hain zuzen ere, gehien axola duena. Beti izango naiz ahalik eta gutxien kutsatzearen aldekoa, lan handixeagoa hartu eta diru gehixeago xahutu behar badut ere. Hori buruzko behin betiko erabakia hartu baino lehen, udalak behar bezala informazio gaitzan nahi nuke. Ahalik eta sistema erosoena izan dadin, beharrezko azterketak egitea nahiko nuke, eragozpen gutxien sortuko dituen, hoberen funtzionatuko duena. Baina ez dezagun helburu nagusia ahaztu: batik bat, gure zaborren kudeaketa eraginkorra bermatuko duen sistema behar dugu.

Horregatik, politikariei helburu hori lortzeko bidean jar daitezela eskatzen diet. Alderdikeria zentzugabe eta lotsagarriak alde batera utzi, eta froga dezaitezela gure herria gero eta hobea izan dadin ondo kudeatzeko gai direla. Bestela, utz diezaiotela lekua, lanerako eta hiria eraikitzeko beste era batean sinesten duen norbaiti. Gutako batzuek ez dugu falta somatuko, gutxiago kontaminatuta bizitzea eskertuko dugu eta.

■ **Ander Azurmendi Perez de Lazarraga.**



Topic zentrorra sarrera doan izango dute laguneren klubeko txartela eskuratzen dutenek. I. LURKIZU

Hainbat abantaila eskainiko ditu Topic zentroak, laguneren klubeko txartel berriarekin

Webgunetik, posta elektronikoz nahiz posta arruntaren bidez eska daitezke zentroaren klubeko txartela

Itzea Urkizu

Aurrerantzean, Topic zentroak gozatu nahi duen edonork abantailak izango ditu, Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Zentroak sortu berri duen Zentroaren Laguneren Klubeko txartelarekin.

Topic eta Tolosako Ekinbide Etxeko arduradunek azaldu duteenez, «eramaleari abantaila handiak ekarriko dizkio» zentroak sortu duen txartel berriak. Lehenik eta behin, Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Zentroarekin etengabeko harremana izateko aukera eskainiko diete txartelaren jabeek, eta zentroak antolatzen dituen jardueretan lehentasuna eta deskontuak izango dituztela diote.

Prezio hobekak

Gaur egun, Topic zentrorra sartu nahi duten guztiak sarrera eskuratu behar izaten dute. Topic zentroaren laguneren klubeko txartelarekin, ordea, museoan doan sartu ahal izango dira erabiltzaileak: «Modu honetara, noiznahi bisitatu ahal izango dute mundu osoko 1.500 pieza inguruko ondarearen zati bat».

Bide beretik, zentroak hiru hilabetez behin aldatzen dituen erakusketen inaugurazioetarako gonbidapenak ere jasoko dituzte txartel berriaren jabeek. Arduradunen ustez, «horrela txotxongi-

loari buruz duten ikuspegia berri- tuta ahal izango dute erabiltzaileek, hilabete gutxian behin».

Topic-en laguneren zentroko txartelak, ordea, museoaz kanpo jardueretarako ere erraztasunak eta abantailak eskaintzea du helburu. Horrela, Tolosako Ekinbide Etxeak antolatzen dituen ikuskizunetan prezio murriztuak izango dituzte zentroaren txartela dutenek; era berean, Topic zentroko tailer guztietan, nahiz Tolosako Ekinbide Etxeak antolatuta koetan, %20ko beherapena egingo diete. Azkenik, txartelaren jabeek %10eko beherapena izango dute Topic zentroko denetan, eta beste %10eko beherapena zentroak egin daitezkeen urtebetetze ospakizunetan ere.

Aipatutakoaz gain, txartela eskuratzen dutenek sarrerak erosteko epe bereziaz gozatu ahal izango dute, eta uanean-unean informazioa posta elektronikoz bidez jasoko dute, gainera.

Zentroko arduradunak, ordea, Tolosatik harago begira ere jarri dira, eta zentroko laguneren klubeko txartelarekin, Donostiako Aquariuma bisitatzea, nahiz hango dendan erosketak egitea, %10 merkeagoa izango da

Txartela egiteko hiru modu

Topic zentroko laguneren klubeko txartela egiteko, hiru bide aukera ditzakete erabiltzaileak. Batetik, cit@citotolosa.com helbide elektronikora mezua bidalita egin daitezke harpidetza. Posta arruntaren bidez ere, eskura daitezke txartela, honako helbidera idatzita: Euskal Herria plaza, 1 20400 Tolosa. Azkenik, Topic zentroaren web orrian ere txartela lortzeko aukera bada, www.topicotolosa.com-en. Txartel berriaren inguruan informazio gehiago eskuratu nahi duen edonork, 943 65 04 14 telefono zenbakira dei egin dezake.

Txotxongiloen Topic zentroko txartelaren jabeek, urtean 5 euro ordaindu beharko dute haurrak izanez gero; eta helduek, berriz, urtean 10 euroko kuota izango dute. Familia ugarien kasuan, haurrek 3 euroko kuota izango dute, eta helduek 5 eurokoa.

'Gelede mask' erakusketak

Datorren larunbatean, *Gelede mask* izeneko erakusketak inauguratu dute Topic zentroa, eta ekainaren 10era bitarte ikusgai izango da 2012. urteko lehen erakusketak.

Nigeriako eta Beningo (Afrika) maskara berezi batzuen bilduma pribatua da. Maskarek gainera papnira artikulatuak dituzte, eta zenbait zeremoniatan erabiltzen dituzte.



Beningo maskara bat. HITZA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Tolosako Bilduk atez ateko sistema «proposatuko eta sustatuko» duela esan du

Udalerrri bakoitzean sistemaren ezarpen zehatzak «azterketa oso berezitua» behar duela gaineratu du

Imanol Garcia Landa

Aurreko astean Bilduk gidatzen dituen Gipuzkoako hainbat udal-atek atekoaren alde egingo zutela iragarri zuten. Horren harira, Tolosako Bilduk gaiaren inguruko adierazpenak egin ditu, eta «hiri hondakin solidoen bilketa selektiborako sistemak, atez atekoak, proposatu eta sustatuko» dituela esan du. Izan ere, sistema hauek dira «egingarriak, merkeak, ekologikoak eta eraginkorrak direla frogatu direnak, %80tik gorako birziklapen maila lortuz». Hala ere, sistema horien ezarpen zehatzak udalerrri bakoitzean «az-

terketa oso berezitua» behar duela gaineratu du koalizioak prentsa oharrean.

Hauteskunde kanpainatik bertatik Tolosako Bilduk gizarte eztabaida zabal baten beharra aldarrikatu duela esan du, «eragile sozial zein politiko ezberdinen arteko, hiri hondakin solidoen kudeaketa egokiena lortze alde-»ra. Azken osoko bilkuran, «helburu horren barruan kokatzen den lantalde baten eraketa» bestu zuela azaldu du. Osoko Bilkura berean Tolosako udalerrriaren ezaugarrietara ongien egokitzen den sistemaren inguruko azterlana Tolosaldeko Mankomunitateari eskatzea erabaki zela gaineratu du: «Hau da, hiri hondakin solidoen bilketan eskumena duenari. Aipatu azterlana egiten ari dela eta laster izango dugu eskuartean».

Bilduren iritziz, «azkenik aukatzen den sistema edozein izanik

ere, egun indarrean dagoen ereduarekiko erroko aldaketa ekarri beharko luke, honen porrota sekulakoa izan baita eta ez du lortu birziklapen maila %25etik gorakoa izatea, kasurik onenean ere». Koalizioak gaineratu duenez, «Europako Batasunak hala agintzen du».

Bilduk errauskailurik ez duela nahi esan du, «ez Tolosan, ez Zubietan, ez beste inon ere». Koalizioak azaldu duenez, «pertsontzat eta ingurumenarentzat kaltegarriak izateaz gain, mugatuak diren lehengaien kudeaketa arduragabea dakarte, 'erabili eta bota' erueda, etorkizun eraginkorrerako eta arduratsugar baten aurkakoa dena». Tolosako Bilduk, azkenik, esan du «sinesmen osoa» duela herritarrengan eta pertsonengan, eta «konfiantza osoa» du, «gaurtik hasita, tolosarrok ere hobeto egingo dugula orain arte nahikoa izan ez dena».



Aurtengo Ekozinemaldiaren kartela. HITZA

VI. Ekozinemaldiaren filmak ikusi ahalko dira kultur etxean

Ekologistak Martxan elkarteak antolatu du ekimena; gaur eta bihar ikusi daitezke bost filmak, Tolosan

I. Garcia Landa

Ekologistak Martxan elkarteak Zor Ekologikoa taldeak VI. Ekozinemaldia antolatu du. Hainbat filma proiektatuko dituzte hainbat herritan; horietatik bost gaur eta bihar ikusi ahalko dira Tolosako kultur etxean, 19:30ean hasiko diren saioetan.

Gaurko emanaldian, bi filma proiektatuko dituzte: *La MAT* eta

The Pipe. Lehenengoa goi tentsio-koi linea elektriko berruzkoa da eta bigarrenak Irlandako ipar-ekialdeko kostaldeko herri txiki baten borroka kontatzen du, haien bizitzak, bat batean, gas naturala eroateko hodi baten ezarpenak aztoratzen duenean. Bihar beste hiru ikusiko dira: *Palmed Off*, palma-olio plantazioek Indonesian kalteturiko indigenen testigantzetan oinarrituta; *Amanece Dignidad*, multinazionalak Latinoamerikan sortutako «gizarte eta ingurumen ondorio latzak» erakusten ditu; azkenik, *Abuela Grillo* marrazki bizidunetako film laburrak uraren merkaturatzearen kontrako herrien borroka erakusten du.

→ Laburrak

Arozenatarren Ttun Ttuna Orbelak tabernan, bihar

KULTURA › Orbelak tabernan beste emanaldi bat izango dute, bihar, Orbelako Gauak zikloaren barruan. Oraingo honetan herri musikaz gozatze-ko aukera izango du bertara joaten denak. Arozenatarren Ttun Ttuna taldeak emango du kontzertua, 22:30ean hasita. Hiru anaia oartzuarrek osatzen dute taldea, eta hauek herri doinu eta bestelakoak ere ekarriko dituzte. Horretarako txistuaz, danbolinaz, gitarraz eta atabalez baliatuko dira. Emanaldian umorea ez dela faltako esan dute antolatzaileek.

Pello Odriozola eskatzeko eskatuko dute beste behin

POLITIKA › Lizardi kultur elkar- teak hileko lehenengo ostegun-ean elkarretaratzeko egingo du beste behin, Pello Odriozola elkartekidearen askatasuna eskatzeko. Elkarretaratzeko, beraz, bihar izango da, Tolosako udaletxearen aurrean, 19:30ean.

Kirikiñokoak afaria antolatzen ari dira

GIZARTEA › Kirikiño-Txantxan- gorriren 25. urteurrena dela eta, apirilaren 21ean, afari erraldoia antolatu nahi dute. Bertara nahi duen guztia dago gonbidatuta (taldeko kide ohiak, begiraleak, begirale ohiak, gurasoak, laguntzaileak...). Edozein galdera egi- teko edota apuntatzeko posta elektronikoa bat bidali behar da izen-abizenak zehaztuz *kiriki- noaisialdia@gmail.com* helbi- dera. Ondoren informazio gehiago bidaliko dieite emaila bidaltzen dietenei.

Ezker abertzaleak batzarra egingo du, bihar

POLITIKA › Tolosako ezker abertzaleak batzarra egingo du, bihar, osteguna, 20:00etan, udaletxeko batzar aretoan. Ber- tan, egungo egoera politikoa eta 2012rako ildo politikoa azaldu eta eztabaidatuko dira.



Iurreamendi egoitza izen bereko muinoan dago. E. EZEIZA

Martxan dago berriro gaueko erizaintza zerbitzua Iurreamendin

Udal gobernua dioenez, «kudeaketa eraginkorragoa eginez» lortu da zerbitzua ezartzea

I. Garcia Landa

Tolosako udal gobernua azaldu duenez, aurreko asteburutik martxan dago berriro gaueko erizaintza zerbitzua Iurreamendi egoitzan. Zerbitzu hori aurreko legealdian galdu egin zela esan du udal gobernua, «aitzakiazat jarrita Foru Aldundiaren arau jakin batzuen bete beharra». Lege-

aldi honen hasieran, Iurreamendi-ko lehenengo zuzendaritza batzordearen bileran, zerbitzu hori berreskuratzea eskatu zela zehaztu du. Zuzendaritza horretan ordezkatuta daude Iurreamendi-ko langileak, egoiliarren senitar- tekoak eta herriko hainbat eragi- le.

«Baliabideak urri izaten jarraitzen badute ere», esan du udal go- bernua, «erizaintza zerbitzu osoa berrantolatu eta kudeaketa eraginkorragoa eginez, lortu da gainkostu txiki baten truke gaue- legealdian galdu egin zela esan du udal gobernua, «aitzakiazat jarrita Foru Aldundiaren arau jakin batzuen bete beharra».

«Baliabideak urri izaten jarraitzen badute ere», esan du udal go- bernua, «erizaintza zerbitzu osoa berrantolatu eta kudeaketa eraginkorragoa eginez, lortu da gainkostu txiki baten truke gaue- legealdian galdu egin zela esan du udal gobernua, «aitzakiazat jarrita Foru Aldundiaren arau jakin batzuen bete beharra».

na, Foru Aldundiak ezarritako arauen barnean izan dela gaine- ratu du udal gobernua.

Adostasuna «handia» dela gaine- ratu du, bai 24 orduko erizain- tza zerbitzuaren beharra agertze- rakoan eta baita gaueko erizain- tza zerbitzua kentzeak adineko egoiliarren artean eragin dituen arazoak diagnostikatzerakoan ere.

Hori horrela, otsailaren 27tik aurrera, «baliabideak modu era- ginkorrean kudeatuz», Iurrea- mendin egoitzan gaueko erizaintza zerbitzua berrezarri da, «bertako egoiliarren bizi kalitatea nabar- men hobetuz», adierazi du udal gobernua.



Prentsaurrekoa eman zuten, atzo, Egarri tabernan, Joxe Mari Luengok, Iker Hernandezek, Alaitz Ormazabalek eta Maider Agirrek. IGL

↓ Egitaraua

MARTXOAK 3, LARUNBATA

- **22:30.** Markos Untzeta Trio, Atxulondo tabernan.
- **23:15.** Xabi ta Petti, Atxulondo tabernan.
- **00:15.** Nico Wayne Toussaint Band, Egarri tabernan.
- **01:30.** Los Mighty Calacas eta Marcos Coll, Pasmus tabernan.

emanaldia. Leku berean joko dute Xabi ta Petti bikoteak. Antolatzaileen arabera, nahikoa da bi musikariak bost minutuz eszenatoki baten gainean elkarrekin iustea, «arima bikiak direla oharrezko». Musika, eta bereziki rock and rolla, «grinaz eta erraietatik bizitzeko eta ulertzeko modua partekatzen dute». Euren kontzertuak, akustikoak eta gordinak baina biziak, beroak eta elektrizitatez beterikoak direla esan dute. Egarri tabernan Nico Wayne Toussaint Band taldeak jo du. Taldeari izena ematen dion musikariak aho soinuoa jotzen du eta taldeko abeslaria da ere. Bere ibilbidea haurtzaroen du jatorria, piano-jotzailea izanik aitak txikitatik erakutsi baitzion musika. Hamabos urte zituela bluesean murgiltzeko erabakia hartu zuen, James Cottoni entzun eta gero. Ameriketako Estatu Batuetara joan zen bluesa gertuagotik ezagutzeko. Egun, Europako blues munduko artistarik handiena dela esaten dute adituek. Izatez Baionakoa den musikariak *Lonely Number* bere azken lana aurkeztuko du kontzertuan.

Jaialdiaren azken kontzertua Los Mighty Calacas eta Marcos Coll musikariek emango dute, Pasmus tabernan. Mexikotik datorren taldea da Los Mighty Calacas, eta blues, soul, funk, surf eta groove estiloak jotzen dituzte, tradiziozko musika eta herri kultura latino eta mexikarrarekin nahastuz, eguneroko hotsez eta egoera pika-reskoz beterik.

Lau talderen emanaldiak entzun ahalko dira Zizurkilgo X. Blues Gauan

Jaialdia larunbatean da; udalak antolatu du, Atxulondo, Egarri eta Pasmus tabernen parte hartze zuzenarekin

Imanol Garcia Landa Zizurkil

Egarri tabernan egin dute aurten Zizurkilgo Blues Gauaren aurkezpena. Izan ere, hamargarren urtea betetzen du eta antolatzaileek esanahi berezia eman diote ekimenari. Lau talde ariko dira larunbatean, martxoaren 3an, herriko hiru tabernetan beren kontzertuak ematen, eta antolatzaileek esan dutenez, «musi-

ka zaleak asetuko dituzte beraien saioekin».

Hamargarren aldian da Zizurkilgo Udalak eta herriko hiru tabernetan Blues Gaua antolatzen dute. Atxulondo, Egarri eta Pasmus tabernetan izango dira kontzertuak, eta, esan bezala, lau izango dira artistak: Markos Untzeta Trio, Xabi ta Petti, Nico Wayne Toussaint Band, eta Los Mighty Calacas, Marcos Collen laguntzarekin.

Alaitz Ormazabal Kultura zinegotziak Blues Gauak dagoeneko hamar urte bete dituela eta tabernen parte hartzea nabarmendu du: «Udalak antolatu du, baina tabernarien parte hartzea oso zuzena izan da. Jaialdia antolatzeko

egon den elkarlana azpimarratuko nuke».

Iker Hernandezek tabernarien ordezkaritza gisa hitz egin du eta lehenengo Blues Gaua 2003an egin zela gogora ekarri du. Orduan Atxulondo eta Egarri tabernetaz gain, Aurrera tabernan ere egiten zen. Izan ere, taberna horretako Imanol Eizmendiri buruzko aipamen berezia egin du Hernandezek, bera baitzen antolaketaz arduratzen zena. Aurrera taberna orain bi urte itxi egin zen, eta aurrerok urtean Pasmus taberna hasi zen parte hartzen jaialdian. Hernandezek tabernen arteko elkarlana ere nabarmendu du, eta jaialdiaren antolakuntzan ikusten ez den lan asko dagoela esan

Udalaren eta tabernen arteko elkarlana nabarmendu du Alaitz Ormazabal zinegotziak

du. Bere aldetik, Maider Agirre Kultura teknikariak X. Blues Gauan joko duten taldeen maila nabarmendu du.

Egitaraua betea

Eszenatokira lehenengo aterako direnak Markos Untzeta Trio izango dira. Untzeta eibartarrak *Mississippi* diskoa kaleratu berri du, eta bertan blues, gospel eta country musikaren lurraldera eginiko bidaia islatzen du. Atxulondo tabernan egingo dute beren

Musika eta dantza, bat eginik 'Nora' ikuskizunean

Mikel Urdangarinen doinuak eta Traspasos taldearen mugimenduak, entzungai eta ikusgai Tolosako Leidor aretoan

I. Garcia Landa Tolosa

Mikel Urdangarinen doinuak eta Traspasos dantza taldearen mugimenduak bat egiten dute *Nora* ikuskizunean. Ostiralean, martxoak 2, Leidor aretoan egingo dute emanaldia, 20:30ean. Proiektu berri horretan, «bat egingo dira bi adierazpen motatan, ikus-

entzuleek hainbat sentsazio lortuko dituzten bi hizkuntz unibertsalen bidez», azaldu dute emanaldiaren arduradunek.

Mikel Urdangarinek gitarra eta ahotsa jarriko ditu, eta bere ondoan izango ditu Nika Bitchiashviliren biolina eta Koldo Uriarteren pianoa. Traspasos dantza taldea sei kidek osatzen dute: Marga Arroyo koreografoa eta dantzaria, Gema Espinosa koreografoa, Idoia Blanco dantzaria, Ainara Biteri dantzaria, Nagore Sagardui dantzaria eta Eider Mendizabal dantzaria. Sarrerak aurretik eros daitezke www.kutxa.net helbidean.



Nora ikuskizunaren aurreko emanaldi bateko irudia. TXEMA VALLES

Saioa Iraola • Leitzaldeko Bilgune Feministako kidea

Emakume abertzaleen V. Topaketa Feministak hartuko ditu Leitzak ostiraletik igandera; bertan egin ziren estreinakoak, eta hamar urte eta gero, balantzea egin eta aurrera begirako ildoak zehaztuko dituzte.

«Kontzientziazioan aurreratu dugu, baina emakumeon egoerak okerrera egin du»

Iñigo Terradillos Leitza

Hamar urteren ondoren, Leitzara itzuliko dira Topaketa Feministak. 2001. urtean, Emakume Abertzaleen I. Topaketa Feministak egin ziren bertan, emakumeen egoeraren gaineko diagnostikora hurbiltzeko, eta borroka feministaren beharrak identifikatzeko. Etxe hasi eta igandera bitarte iraungo duten topaketetan, *Hamaika egiteko ari gara!* lelopean, hamar urte hauetako balantzea egingo dute, eta aurrera begira euren eskaintza politikoa zein izango den zehaztuko dute. Saioa Iraola Leitzaldeko Bigune Feministako kideak azaldu ditu aurretiko topaketen xehetasunak.

'Hamaika egiteko ari gara' da aurretiko topaketen leloa. Zer esan nahi du?

Lelo honek, batetik, hamar urtetako ibilbidea islatu nahi du. Bestetik, feminismitik jardunari ematen diogu garrantzia, eta horregatik, orain arte egin duguna eta egiteko dagoena asko dela adierazi nahi dugu.

Zein da topaketen helburua?

Emakume abertzaleen topaketa feministak emakume abertzale eta feminista gisa herri honen eraikuntzan landu beharreko ildoak zehazteko topagunea dira. Hausnarketarako gunea dira. Hori da helburu nagusia, eta horrez gain, ondo pasatzea eta jendea ezagutzea ere bilatzen duen ekimena da. Borroka honetan bakarrik ez gaudela sentitzeko oso

baliagarriak dira Topaketa Feministak.

Norizuzenduta daude?

Feminista bezala jarduten duen ororentzat daude zabalik. Emakumeen eskubideen aldeko defentsan interesa duen guztiei zuzendua dago. Esaterako, sindikagintzan edota herrigintzan lanean ari diren emakume askorentzat baliagarria izan daitekeen formakuntza eskainiko da. Baina, era berean, euren egunerokoan gaia lantzen ez duten emakumeentzat ere oso baliagarria izan daiteke. Tailer ugari daude askotariko gaien inguruan, ahalik eta zabalena izateko parte hartzea, eta horregatik, herriar oro animatzen dugu Leitzara etortzera. Oraingoz, 260 lagun daude izena emanda, eta 400 inguru espero ditugu.

Zeren inguruak dira tailerrak?

Lau ildo nagusi dituzte. Lehenak, prozesu demokratikoa eta emakumeen hitza jorratuko du; bigarrenak, Euskal Herriaren eraikuntzari begira estrategia politikokoak landuko ditu, emakume abertzale eta feminista gisa; hirugarren ildoak eredu ekonomikoa eta soziala izango da; eta azkenak emakume etorkinen egoera aztertuko du, feminismitik begiratu.

Bilgune Feministaren sorrera bultzatu zuten topaketek.

Leitzan duela hamar urte egin ziren lehen topaketetan erreferente nazional baten beharra ikusi zen, eta handik urtebetera Bilgune

ne Feminista sortu zen. Leitzaren kasuan, duela bost urte sortu genuen. Gure eskualdean emakumeen eskubideak sistematikoki zapalduak zirela ikusten genuen. Lan munduan, esaterako, aipatzeakoa da Sarrio paper fabrika, 30 urtez egon baitzen emakumeak eskulanerako kontratatu gabe. Horrela hasi ginen Bilgune Feminista Leitzalderako sortzeko beharra ikusten.

Zer lortu da borroka urte hauetan?

Kontzientziazioan aurrera egin da. Lehen, eskubideen urraketa bezala ikusten ez zena gaur egun bai. Leitzaren kasuan, esaterako, aurtun curriculum bilketa bat egin dugu Sarrio lantegirako, eta emaitza onak izan ditu, bost urterako hiru kontratu egin baitizkiete hiru emakumeri. Orain sei urte inork pentsatu ere egingo ez lukeena. Borroka feminista indartsu dago, baina emakumeen egoerak okerrera egin du, orokorrean. Aldarrikapenak ez dira aldatu, hau da, abortuaren eskubidea aldarrikatzen jarraitzen dugu, eskasiaren aurka egiten dugu, etxeko langileen egoera...

Mugimendu feministak zer paper du egun, Euskal Herrian bizi dugun egoeran?

Egoera oso garrantzitsua bizi dugu, borroka feminismoari atak irekitzen dizkiona. Gure esku-bideen aitortza lortzeko une oso garrantzitsua da, beraz, mugimendu feministatik ezin dugu beste alde batera begiratu.

• leitzaldea@hitza.info



IT.

↓ Egitaraua

MARTXOAK 2, OSTIRALA

- **16:00-18:00.** Izen ematea zinean.
- **18:00-20:00.** Mahai inguru nagusia eta eztabaida: *Prozesu demokratikoa eta emakumeon hitza: han eta hemen.* (Nazioarteko esperientziak ezagutu eta gurean fintzen joateko tarte izango da).
- **20:00-02:00.** Afarria eta emanaldi akustikoa Atekabeltz herrigunean.

MARTXOAK 3, LARUNBATA

- **09:30.** Izen ematea zinean.
- **10:00-12:00.** Mahai inguru nagusia: *Eredu ekonomikoa eta sozial feminista eraikitze bidean; gaurdanik, urratsak emanez.*
- **12:00-14:00.** Eztabaida tailerrak: zaintza, elikadura, subira-tza, osasuna, prostituzioa, emakume presoak.
- **16:00-20:00.** Esparru anitzeko jardun feminista ezagutuz.

Hainbat tailer izango dira auke-ran.

- **20:00-04:00.** Afarria eta festa Atekabeltz herrigunean: antzerkia, kontzertuak, DJ-ak...

MARTXOAK 4, IGANDEA

- **09:30.** Izen ematea zinean.
- **10:00-12:00.** Mahai inguru nagusia: *Independentzia dugu bidea eta helburua: Euskal Herria feminista.*
- **12:00-13:00.** Ondorioak.

IZEN EMATEA

- **Aurrez.** 2012topaketafeministak.wordpress.com blogean. Egunduztietarako edota egun bakarrerako den zehaztu behar da. Egunean bertan ere egin ahal da.
- **Prezioa.** Egunduztietarako (otorduak, tailerrak eta lotarako lekua) 25 euro. Egunduztietarako (otorduak eta tailerrak) 12.
- **Ordainketa.** 3035 0129 19 1290033730 zenbakian.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



GOIZA	LAINOTUTA
ARRATSALDEA	OSKARRI
BEROENA	15°
HOTZENA	7°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendari: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialde, Irura, Larraul, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIK

- **Berastegi.** Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna dela eta martxoaren 9an afaria egingo dute Basurde elkartearen. Igandea, martxoak 4, da izena emateko azken eguna, eta 943 68 31 51 (kontxi) edo 943 68 33 38 (Maria Jesus) telefono zenbakietara deitu behar da.
- **Berrobi.** Martxoaren 9an ospatuko dute beren eguna Berrobiko emakumeek. Solastokin egingo dute afaria eta txartelak 25 eurotan daude salgai.
- **Ikaztegieta.** Ikaztegietak emakumeek martxoaren 9an ospatuko dute Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna. Afaria egingo dute herriko ostatuan, eta txartelak martxoak 8, osteguna, baino lehen erosi behar dira 15 eurotan.
- **Tolosa.** Kirikiño-Txantxangorriren 25. urteurrena dela eta, apirilaren 2lean, afari erraldoia antolatuko dute. Bertara nahi duen guztia dago gonbidatuta (taldeko kide ohiak, begiraleak, begirale ohiak, gurasoak, laguntzaileak...). Edozein galdera egiteko edota apuntatzeko email bat bidali behar da izen-abizenak zehaztuz helbide honetara: kirikiñoaisialdia@gmail.com.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 67 36 49.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Telefonoa: 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Telefonoa: 112

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Irudia Inauterietako Argazki Lehiaketa



LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO GARAIA

HITZAK urtero bezala Inauterietako Argazki Lehiaketa antolatuko du. Irudiak bidaltzeko azken eguna martxoaren 9a izango da, eta irabazleak Ajangizeko (Bizkaia) Astobietan nekazaritza moan bi pertsonentzako gau bateko egonaldia eskuratu-

ko du. Lehiaketa irekia da eta parte hartzaile bakoitzak irudi bakarra bidali dezake. Argazkiak thargazkiak@hitza.info helbidera bidali behar dira izen-abizenekin eta telefono zenbaki batekin batera. Honako irudia Alaitz Mujikak bidali du. A.M.

Agurrak

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...


agurrak



**Stock Azoka
Kursaalean**
Martxoaren 2tik 5era

Bertan izango gara

Errementari Kalea, z/g
TOLOSA • Tel.: 943 67 16 30



LENTZERIA